

ARBOLA SANTUARI.

POESIA SEÑALADA CON MENCIÓN HONORÍFICA EN LOS JUEGOS FLORALES
DE SAN SEBASTIAN.

I.

¡O! arbol santu maitagarria
arbola bedekatua,
ikusten gaude nola bukatu
eziñik zauden mundua;
bada azkendu eta Jaunari
eman bañan len kontua,
zure oñean nai det kantatu
dauden penaren kantua.

II.

Biotz tristeak kantatu naita
ezin kanturik nik egin,
nere gogoak al bait ez luke
nai iñorekin utzezin;
atozte bada nigana musak
eman dezadan atzezin,
erakustera nola kantatu
nola bietan itzezin.

III.

Agurtzen zaitut arbol maitatu
Jaunak guretzat jarria,
gure legien gordetzallea
gure erliki aundiya;
Zü izanikan lur maite onen
glorien agergarria,
Zure galeraz lutoz jantzitzen
ari da euskal-erria,

IV.

Zain sendo piñak eri dauzkatzu
indarrrik gabe besoak,
amilka datoz lege santuak
beso oiekin jasoak;
penaz anima negarti para
diratelako auzoak,
zure oñean nai ditut eman
malko ale bi gozoak.

V.

Len miñez jartzen baldin baziñan
senda gai onak baziran, (tzen
zeukazun gaitza zugandik ken-
gogor saiatzen baitziran;
ala zure zain sendo piñ aiek
indar bagetzen etziran,
¡bañan! orduko gauzak joan ziran
¡lengo gizonak ill ziran!!

VI.

Zure gañean aizkorik bazan
asten egiten egurra,
sarri atzera arazten zien
aizkoldunari muturra;
beren odolez erregatubaz
zü ontzen zinduen lurra,
paratzen zuten errespetoa
eta geroko beldurra.

VII.

Etzan izandu Erromatarrik,
 Godo, Kartago, Mororik,
 zure lurrean naikeran oñik
 ezarri izan zubenik;
 zaintzaille onak zinduzelako
 zú beti sendo egonik,
 iñork etzuben bereganatu
 prutu zurekin zegoanik.

VIII.

Etzan arbol bat gai obekorik
 Aprikan eta Asian,
 ez Europan da ez Amerikan
 itz batez mundu-guzian;
 jaiotzen ziran guziak zure
 garaitearen azpian,
 bizitzen ziran ustiarpe gabe
 libre Jaunaren grazian.

IX.

Asaba zarrak egiñikako
 disdisten zuten legeak,
 zuk iruki oi zinduzen kutun
 bat beselañen gordeak;
 zure azpira etorririkan
 Gaztelako Erregeak,
 ontzat askotan eman zituzten
 zeuzkatzun libertadeak.

X.

Atzo ikusten ziran kontubak
 oso emanik gaur jira,
 beste leiotik arkitzen gera
 arbola zuri begira;
 ¿non dira lengo gauza ederrak?
 ¿zer egin dute? ¿non dira?
 zokon batean gordeak daude,
 iñon ageri ez dira.

XI.

¿Zeiñ izandu da zokoratzeko
 gauza begiragarriak?
 ¿zer uskeri du egin arbola,
 Jaunak guretzat jarriak?
 ez dakit ori; dakit bakarrik
 nola tirarik arriak,
 egin dizkaten, illtzen daukaten
 zauri ikaragarriak.

XII.

¿Eta nón giñan gú, zaintzailleak
 ez begiratzeko zuri?
 ¿ez paratzeko errespetoa
 gaitz egin naizizunari?
 nola parrata burla askotan
 egiten zaion onari,
 ala arrotzak egin digute
 gai ontan euskaldunari.

XIII.

¿Non dira lengo asaba zarrak
 pozez jachiak lurpera?
 ¿ote dakite dizkigutenik
 poz zori onak atera?
 baldin jaikiko balirake gaur
 arbola zure oñera;
 maldizion bat bota bearrak
 lirake gure gañera.

XIV.

Gauzak onela ikusirikan
 ¿nón dira gure begiak?
 ¿biotzak penaz urturikan ez
 kentzeko malko lodiak?
 ¡eror zaitezte arkaitz tontorrak!
 ¡eror zaitezte mendiak!
 zeren azpian eztalditezen
 ¡¡dauden naigabe aundiak!!

XV

¡O arbol santu maitagarria,
 zaude igar ta itsusi!
 ¿ez alzindezke berriz len bezin
 berde ta eder ikusi?
 on gaien billa asten bazera
 ez naiz ni joango igasi,
 zure oñean nai det azkendu
 zú gabe ezdet nai bizi.

XVI.

Ezin emandet kanta geiako
 negarrez busti det lira,
 arbola gatik senti ditudan
 penak chit aundiak dira;
 biotzetikan kantatu ditut
 Jaungoikoari begira,
 arren entzun da ditzan zerutik
 kontubak lenera jira.

EUSKALDUN BAT.

ECHEDEA. ¹

AMALAUDUNA.

(ON ASZENSIO URAIN-GO JAUNARI)

Munduko neke danen gozagarriya,
 Negar-malko guztiyen chukatzallea,
 Zuk arintzen dakizu gure larriya,
 Zuk gozatutzen degun atsekabea
 Zera miñdunarentzat dendagarriya,
 Tristetuarentzako poz-emallea:
 Illunik daudenentzat argikariya,
 Penatu guziyentzat eder, maitea.
 ¡Echende zerukoia zoriønduna!
 Gizón estutasunak azpiratua,
 Doakabez josiya, naigabeduna,
 Berotasun gozoak, chori oztúa
 Poztutzen duen eran, pozten dezuna,
 ¡lzandu zaite beti bedeinkatua!

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

(1) Esperanza.